

egunekoa

Samir Amir

(Ekonomilaria)

Globalizazioa edo mundu osoko 'apartheid'-a

Kapitalismo erreala, mundu osoan hedatzean, beti lagundu du gero eta handiagoa izan dadin herrien arteko desberdintasuna. Alde hori ez da herri edo aldi zehatz batean gertatzen diren egoera berezien ondorio. Kapitalaren metaketaren logika inmanentearen emaitza da. Sistema honen ezinbesteko ondorioa da arrazakeria.

Ideologia nagusiaren ohiko diskurtsuan, merkatu askeko ekonomiak berez ez ditu kontuan hartzen gizabanakoen eta herrien arteko desberdintasuna, eta demokrazia sustatzen du. Errealitatean, kapitalismo erreala oso bestelakoa da, desberdintasunak sortzen dituelako herrien artean, eta, hala, arrazakeria modu oinarritzkoenak sustatzen dituelako.

Globalizazio neoliberalak gertatzen ari den honetan, herrien arteko desberdintasun egoera itxuraz iraultzen ari dela diote. Globalizazio berriak *aukera* bat ematen bide die globalizazioari atxikitako erronka onartu eta sisteman zentzuz integratzen dakiten herriei. Orduan, herri horiek aurreko *erdigunera* iritsi ahal izango dira.

Hala ere, horrelakorik ez dela gertatzen ikusiko dugu. Aitzitik, erdiguneak sistema osoan nagusi-

GLOBALIZAZIO NEOLIBERALA

Nagusitasun monopolista iraunarazteko erabilitako bide berriak herrien arteko desberdintasun handiagoa azaltzen du

'KAPITALISMO ERREALA'

Desberdintasunak sortzen ditu herrien artean, eta, hala, arrazakeria modu oinarritzkoenak sustatzen ditu

tasun monopolista iraunarazteko erabilitako bide berriak herrien arteko polarizazio eta desberdintasun gero eta handiagoa azaltzen du. Globalizazio modu horren logika haxe baino ez da: *apartheid*-a mundu osoan antolatzea.

Erronka horiei erantzun eraginkorra emateko nahitaezkoa da ulertzea Historia ez duela gidatzen

lege ekonomiko *hutsen* ezinbesteko erabilpenak. Lege horiek adierazten dituzten joeren aurka gizar-teak emandako erantzunek eratzen dute Historia, eta lege horiek, bestalde, aipatu legeok diharduten gizarte harremanen testuingurua zehazten dute.

Sistemaren aurkako indarrek (litekeen izendapena, ustezko lege horiek eskatutakoaren mende alde batera eta guztiz ez jartzeko antolatutako mugimendu koherente eta eraginkor hori adierazteko; legeok, errealitatean, irabazien legea itxuratzen dute, hau da, kapitalismoak sistema gisa dituen ezaugarrietako bat) meta-keta kapitalistaren logika *hutsak* adina eragiten dute Historia errealean.

Erronkak eta alternatibak, beraz, bi dira: edo globalizazio neoliberalak, zeinek, errealitatean, mundu osoko *apartheid*-era baitarama, edo globalizazio *polizentrikoa*, labur deskribatu ditudan oinarrien gainean negoziatuta.

Egiptoko ekonomistak Arrazismoaren Aurkako Durbango Goi Bileran aurkeztutako txostenaren zati bat da honako artikulua.

Erredakzioan itzulia

zutabea

Kepa Korta

531-1

Erlojuaren arabera bederatzi ordu atzerago dago Kalifornia Euskal Herria baino. Egutegiaren arabera 4 hilabete. Irailaren 3an egin dute behintzat euren Maiatzaren lehen-a: *Labor day*. Eguna hurbildu ahala mobilizazio bakan batzuk iragarri zituzten han eta hemen: San Joseko *janitor* edo garbitzaileak, supermerkatu kate handi batzuetako langileak, San Franziskoko BART tren konpainiako langileak... Indar gutxi dute, hala ere, sindikatuek Estatu Batuetan; are gutxiago, Kaliforniako informazio teknologiko konpainietako langileen artean. Sobrare indibidualistegiak dira langileen eskubideen defentsan bat egiteko informatikako langile ezkertiar progreak. Grebari beste garai bateko kontu iritziko diote igual.

*Silicon Valley*ko Palo Alto egin zuen bakar-bakarrak protesta 77 urteko «artzain» luterano erretiratuak. Bere txarteletako mezua sinplea: langileek 1 - exekutiboek 531. Langileei ordaintzen zaien dolar bakoitzeko exekutiboek 531 ordaintzen zaiela, alegia. Iaz %18 igo zitzaizen Estatu Batuetako exekutiboek soldata; %4,3 langileei. Hewlett-Packard enpresako exekutibo nagusi Carly Fiorina andereak 69 milioi dolar (13.800 milioi pezeta inguru; 552 milioi libera inguru) jaso zuen iaz urteko soldata moduan. HP eta *Compaq* batu ondoren, zenbat jasoko ote du aurrean, enpresak milaka langile kaleratuko dituen urte berrean? (Inork ba al du antzeko daturik Euskal Herriari dagokionez?)

Gauza askotan Estatu Batuei begira bizi gara mendebaldeko gainontzeko herrialdeetan. Justizia sozialari dagokionez behintzat ezin hara begira bizi. Ultraliberalismo ekonomikoak injustizia soziala bultzatzen du askatasun indibidualen izenean. Estatu Batuetan dugu honen frogarik argiena. Desberdintasunak areagotu egiten dira eta ez dago kaltetuen erantzun aipagarrik. Azkenaldian, ordea, sindikatuen indarra handitzen ari omen da, txikien artean batez ere. Datorren urtean akaso artzain protestanteak ez du protesta bakarrik egingo. Datorren urterako, berriaz, norantz joko du 531-1 proportzioak?



(0034) 943 300 222

OHARRA: Ahalik eta iritzi gehienek izan dezaten tokia, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idatztea gutun hauetan. Idatzi duenaren izena, telefonoa, helbidea eta NAren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izanez gero, zuzendaritzak bere esku du horretarako eskubidea. Erdaraz iristen diren gutunak ez dira argitaratuko.



zuzendariari@egunkaria.com



Gudarien etorbidea, z/g 20140 Andoain

Aretxabaletako alkatearekin elkartasuna

Lurde Llodio (eta udaletxeko langile guztiak)

Gure Alkatea den Anjel Bergaretxek jasotako mehatxuen aurrean zera adierazi nahi dugu Aretxabaletako Udaleko langileok:

1.- Gure elkartasuna adierazten diogu Anjel Bergaretxeri eta bere familiari.

2.- Horrelakoak gerta ez daitezen, orain arte bezala herriaren alde lanean gogotsu jarrai dezan animatzen dugu.

ETB1eko opor luzeak

Joseba Arrizabalaga • BASAURI

Irailaren 10ean idazten ditut lerro hauek. Euskal Herriko famili gehien-

tzat data garrantzitsua oso: ikasturte berri bat hasi da. Ordutegia aldatu behar izan dute umeek, goizago esnatu dira. Eta jakina, askok eta askok telebista piztu dute 07:30-08:00 tartean. Horietako batzuek ETB1era jo dute, uda guztian programazio ederra eskaini baitu goizeko, 09:00etan hasita. Baina dokumental bat besterik ez dago kate euskaldun bakarrean. Eta beste kateetan? Espainiako kate bitan marrazki bizidunak goizeko 07:30etik aurrera. Asmatu euren aukera. Ez dira ez, gaur fin ibili ETBkoak. Harri-garria bada ere, udako programazioarekin jarraitu dute: marrazki bizidunak goizeko 09:00etan hasi dira, ume guzti-guztiak ikastolan daudenean.

Teletextoan begiratu dut ea biharko (irailaren 11) konponketarik egongo den. Baina ez.

Iaz ere atzeratuta ibili ziren. Zorritxarrez, gertaera hau arazo larri eta sakon baten isla izan daiteke. Audientzia garrantzitsua izanda ere, telebistaren arduradunek ez dute ahaztu behar zerbitzu paregabe eta bakarra eskaintzen dutela seme-alabak euskaraz hezi nahi ditugun gurasooi.

Errefrau baten inguruan

Roman Garmendia • DONOSTIA

Kasu partikularretatik generalizazio zoragarriak ere egin daitezke, baina gero kasu partikularretan aplikatzerakoan salbuespenak, nire iritziz beti, agertzen dira. Adibide bat ipiniko dut errefrau batekin, oso ezaguna dena. *Esaidak norekin habilen, eta esango diat nor haizen*. Bada Jesu-

kristorekin ez da betetzen errefrau hori. Eta kristauok maitasuna sinbolizatzen duen virtute teologal hori praktikatzan dugunean, behar orduetatik kanpo, jakina, ere ez dugu betetzen errefrau horrek dioena. Beraz, ahaztu dezagun errefrau gaizto horren esangura diskriminatorioa, eta aurrerapausoak eman ditzagun baztertuen integrazioan. Edo behintzat, ez ditzagun markatu eta klasifikatu errefrau horren kontra egiten dutenak.

galdeiozu...

Irailaren 18tik aurrera berriro hasiko da Galdeiozu atala. **Mikel Olaziregi Donostiako Zinemaldiko zuzendaria** izango da hurrengo asteko gonbidatua.